

44. atala: Bakarka

Ouija

44.1.- Entzun audioa eta hautatu erantzun egokia:



Tasio urduri dago...

- a) Izan ere, Kevinek laborategian sartzeko baimenik ez duela uste du.
- b) Bere esperimentua bertan behera geldituko ote den beldur da.
- c) Kevinek arrautzak laborategian utzi dituela uste du.

Bi arrautzak norenak dira?



- a) Laborategian sortutakoak
- b) Oilaskoarenak
- c) Satorrarenak

Ouija saio bat egin dute bi astronautek...

- a) Txiten izpirituei non dauden galdetzeko
- b) Amona kubatarrari txitak non dauden galdetzeko
- c) Amona kubatarrak txiten izpirituak non dauden esateko

Kevin eta Tasio...

- a) Txitak Kaxianorekin daudela konturatu dira
- b) Satorra txiten ama dela konturatu dira
- c) Satorrak arrautzak beretzat nahi dituela konturatu dira

44. atala: Bakarka

44.2.- Eusko labela duten produktuen ezaugarria bertakoa eta kalitatezkoa izatea da. Horregatik, ari da Tasio oiloekin esperimentatzen.

Behean, label produktuarekin lotzen diren Euskal Herriko animalia batzuk zerrendatzen zaizkizu. Zein animaliarekin lotuko zenuke pasarte bakoitza?

Hona hemen aukerak (hiru sobera daude): ardia, txerria, ahuntza, astoa, betizua, oiloa, antzara.



antzara

ardia

astoa

betizua

ahuntza

txerria

oiloa

1.- EUSKAL _____

Animalien Genetika Sailak egindako programaren barruan, bertako espeziea kokatzeko, mantentzeko eta ikertzeko, kolore ezberdinak zituztenak eta euskal baserrietan ohikoak zirenak hautatu zituzten barietate puruak lortzeko. Lan honetan oinarrituta, Jose Antonio Mendizabal doktoreak arrazaren estandarra idatzi zuen: hegazti erdi-astuna da, gandor arrunta eta tartso horia dituen. Arraza landatarra da, arrautzak erruteko zein haragitarako egokia.

2.- EUSKAL _____

Arraza honen jatorria Keltiar leinukoa da. Bere azala beltza eta zuria da. Burua tamaina ertainekoa. Belarriak, handiak, luzeak eta jausita ditu, begiak erabat estaltzeko moduan. Bizkarraldea arku-itxurakoa du. Sabela handia eta jausia duenez, kumaldi handiak hezteko aukera ematen dio. Arraza landatarra da, artzaintzan ondo egokitzen dena eta berandu garatzen dena.

3.- EUSKAL _____

Euskal Herrian antzina-antzinatik hazi izan da gris koloreko arraza hau. Sabel-aldea zuria du. Ibilera arina dauka, eta silueta dotorea, nahiz txiki samarra izan. Burua, lepoa, bular-aldea eta atzealdea grisak ditu. Sabela eta buztana zuriak ditu. Mokoak ez du handia, ondo eutsia, eta apurtxo bat laburragoa behealdean. Kolorez, laranja da, eta puntan beltza. Buztana labur-antzekoa da, pixka bat goratua eta irekitxoa.

4.- EUSKAL _____

Animalia hau, erdi basatia izanik, basoetan gordeaz ibiltzen da. Arrek 400 kg. eta 500 kg. bitartean izan ohi dute batez beste eta emeek, aldiz, 350 kg. Kolore uniformeak dute, gari-kolorekoak edo gorrixkak izaten dira, argiakoak edo ilunagoak. Adarrak gaztetan garatzen dituzte eta ilargi erdiaren itxura dute. Arren adarrak emeenak baino zabalagoak izaten dira. Ugalketa-zikloa urtaroekin batera doa, eta urte bitik behin izaten dute txahala.



44. atala: Bakarka

Transkripzioa (03:00)

T- Kevin, hik itzali al duk laborategiko argia?

K- Ez.

T- Benetan? Oso garrantzitsua duk, e? esperimendu bat zapuztekotan zegok eta.

K- Badakizu zure baimenik gabe ez naizela sartzen zure laborategi-zulo horretan.

T- Kevin! Mesedez, esaidak hik ezkutatu dituala inkubatzailan nizkian bi arrautzak.

K- Arrautzak? Nik? Esan dizut ez naizela ezertara sartzen zure laborategira!

T- Ez duk posible, oso ikerketa garrantzitsua duk hau!

K- Aizu, eta zer ari zara egiten arrautzekin?

T- Euskal oilaskoaren ingurukoa

K- Joder...

T-...badakik, eusko label kontuak.

K- Ze matraka eusko labelaren asuntu horrekin.

T- Txitak hazi behar nizkian eta arrautzak desagertu egin dituk.

K- Aizu, baina txita horiek espazioan jaiotzen badira, eusko labeldunak izan daitezke?

T- Teknikoki hau Trebiñu II duk, e? Euskal Herriak espazioan duen enbaxada-modukoa, beraz eusko labeldunak hituzkek...

K- Eta? azaldu al dira?

T- Ez, eta ezin ditek inkubagailutik kanpora denbora gehiegi egon.

K- Hainbesterako al da bada?

T- Gaur jaiotzekoak dituk txitak.

K- Badakit, Tasio, izpirituei galdetuko diegu.

T- Nola izpirituei?

K- Nire amona kubatarra santera zen eta hark erakutsi zidan izpirituekin hitz egiteko modua.

T- Benetan, Johnson?

K- Etorri hona eta ekarri edalontzi bat.

T- Edalontzi bat?

K- Tasio, prestatu zaitez. Ouija-saio bat egitera goaz-eta!

K- Arrautza horietan dauden txiten izpirituei galdetuko diegu.

T- Ez zekiat nola uzten diadan honelakoak egiten.

K- Tira, eutsi edalontzia behatz batekin hemendik eta nire hatza hemen jarriko dut.

T- Benga, bale.

K-Txita-izpiritua, gurekin al zaude?

T- Joder, edalontzia mugitu egin duk!

K- Eta orain esango al diguzue non zaudeten?

T- Hara! berriro mugitzen ari duk. K letran geratu dek. K, Kevin?

K- Hara, komeni zaizunean Johnson deitu ordez Kevin deitzen didazu.

T- Aber, hik al dituk arrautzak.

K- Ezetz ba!

T- Orduan.... K.... K..... Kaxiano! Hire sator puta hori!

K- Ikusten? Hemen daude, osorik eta onik!

T- Banekian bai sator honek ez ziala ezer onik ekarriko, e?

K- Begira, Kaxiano beren ama dela pentsatzen dute txitek.

T- Sator bat txiten ama, jainko maitea!

K- Eusko labelekoak enteratzen direnean, kar, kar, kar!

T- Eta benetan hik ez daukak zerikusirik honekin guztiarekin?

K- Ea, hartu edalontzia eta galde diezaiogun Ouijari, kar, kar, kar!

Erantzunak

4.1.- b / b / a / a

4.2.- 1. Euskal oiloa / 2. Euskal txerria / 3. Euskal antzara / 4. Euskal betizua